



Ormaiztegui Udala

UDAL ORDENANTZA ARAUTZAILEA ONARTZEA

KONTSULTA PUBLIKOA UDALAREN WEB ATARIAN IRAGARTZEA

AZALPENA

Udal Ordenantza arautzailearen kontsulta publikoaren izapidea, helburu honekin:

LEHENDIK DAUDEN ERAIKINETAN BALKOI BERRIAK ERAIKITZEA ETA LEHENGOAK HANDITZEA.

TESTUA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, arauak egiteko prozeduran herritarren parte-hartzea hobetzeko helburuarekin, lehendik dauden eraikinetan balkoiak eraikitzeari buruzko udal-ordenantzaren proiektua egin aurretik, etorkizuneko araudiak uki ditzakeen subjektuen eta erakunde adierazgarrienen iritzia jaso zen.

- A) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- B) Onartzea beharrezkoa eta egokia den.
- C) Arauaren helburuak.
- D) Aukera alternatibo erregulatuak eta ez-erregulatuak.

Hala nahi duten herritar, erakunde eta elkarteek hamabost eguneko epean helarazi ahal izango dituzte beren iritziak, iragarki hau udalaren webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan adierazitako tokietako edozeinetan aurkeztuz.



Ormaiztegui Udala

UDAL ORDENANTZA ARAUTZAILEA ONARTZEA

Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak	<i>Herriko etxebizitza batzuetan ez dago hegaldi irekirik, hau da, balkoirik, bizitzeko espazio gisa, ezta aire zabalera, kalera eta auzora irekita dagoen beste gunerik ere.</i>
Onartzeko beharra eta egokitasuna	<i>COVID-19k eragindako berrogeialdian agertu diren gorabeherak, gutxieneko bizigarritasun-baldintzen aldaketa bultzatzen dutenak.</i>
Arauaren helburuak	<i>Hegalkin irekiak (balkoiak) eraikitzea ahalbidetuko duten irizpideak eta neurriak arautzea, jatorrizko diseinuak hegalkin irekiak aurreikusten ez zituen etxebizitzetan (balkoien modalitatean). Ormaiztegiarren bizitza kalitatea hobetzea.</i>
Bestelako aukera erregulatzaileak eta ez-erregulatzaileak	<i>Ordenantza onartu behar da lehendik dauden eraikinetan balkoi eta terraza berriak eraikitzeko eta lehengoak handitzeko.</i>